

Enara Nazabal Gomez de Segura

A maila • 2 saria



Enara Nazabal Gomez de Segura nauzue, ordiziarra naiz eta bertan, Oianguren institutuan, batxilergoko azken urtea ikasten ari naiz aurten. Abenduaren 21a betidanik izan da berezia niretzat; izan ere, duela 17 urte lehenengoz begiak ireki nituen eguna izan zen. Lehiaketa honetan parte hartuko dudan azken urtea izanda, hasiera eta bukaera horiek lotu nahi izan ditut nire lanean.

Nire zaletasunen artean, lagunartean gozatzea, naturaz blaitzea, musika entzutea, bazter politenetan ilunabarrak mirestea edota idazten bidaiatzea nabarmenduko nituzke.

Idatzi dudan olerkia gizartearen mirail izatea bilatu dut, gaizto gisa ikusten dugunari azala kentzea, larrugorritzea, agerian uztea eta era berean, haren azalaren zirrikutueta bidaiatzea, haren larruaren bihurguneetan bihotzaren taupadak sentitzea. Espero dut zuen gustukoa izatea eta haren isla zuen begietan harrapatzea.

ABENDUAREN 21EAN

Eguna hotz eta euritsu esnatu zen.
Ganbarako kulunkaria dantzan zegoen,
bitartean, leihoa negar eginez.
Aulkian, zabuka, andre bat horren lekuko zen.

Logelako argi-zulo bakarra zen hura.
Bertatik neguaren gorria zen ikusgai.
Andreak abegi ona egin zion,
lasai, ahate mutu gisa.

Emakume ederra zen,
azal betekoa.
Gajoak betilun zirudien,
negua ulertzen zuen bakarra baitzen.

*Negua kolore beroen maitale da,
azpijanetan lapurtzen dizkio horiek udazkenari.
Hosto gorri-horiak amildaraziz,
zelai berdeak elurrarrekin gordez.
Sinetsi ala ez,
koloreak ez ditu betiko ebasten.
Neguak, koloreak anparatzen ditu,
ondoren, berriak, uda-bihotzari oparitzeko.*

*Negua etengabeko borrokan dabil,
lehia amaigabeen udaren aurka.
Urtero inork nahi ez duena izan arren,
ez zaizkio bihotzeko hegoak erortzen.*

*Neguak gaizkile mozorroa janzten du,
udazkenari hiltzen lagunduz,
udaberriaren ondoan bere argiak itzaliz,
udaren etsai ahula bilakatuz.*

*Neguak, hainbeste goresten duen arreta irrikatzen du.
Nekatuta dago besteen begietan irin garbia ez izateaz,
berezitasuna kanpoko itxuragatik maisatzeaz.
Gogaituta dago, akituta.*

Dagoeneko ilundu zuen.
Mandioan beltza zen nagusi
eta andreari betazalak astundu zitzaizkion.
Jada onartu zuen negua ispilu zuela.

Jendea alfer gaiztoan bizi zen,
ikusten zuenari gibeletik begiratu gabe.
Zein mundutan bizi zen jakin gabe,
epaiak isil-ostuka emanaz.

Jada berdin zitzaion,
herrikoen pentsaera atariko haize zen berarentzat.
Jada bazekien negua zeukala
betirako kutun.